

26216  
14967



R.1024  
ATA  
3321

ARABA  
**Zalduondo**  
TRADIZIOA ETA KULTURA



TA  
1



*Lazarraga Amezagatarren Jauregia.*

## **HISTORIA**

Zalduondo antxinean herri oso ezaguna zen batez ere Gipuzkoatik, Hiribildutik hurbileko alturatako harkaitzetan irekitako San Adriango Tunel eta Gotorlekutik zehar Lautadara, heltzen ziren Santiagoko erromesengandik. Bere izena (Saldodon) bere paisaiaren bikaintasunak, bere baserriaren segurantz eta bertako jendearen abegi ona erromes-abestietan eta zenbait erromes ospedun edo bidaiariak hemendik igarotzean idatzitako liburuetakoa bat baino gehiagotan ezarrita gelditu zen.

Gaur egun asko ta asko dira, bertara heltzen direnei Zalduondok eskaintzen dizkien lillurak. Zoragarriz betetako paisai ikusgarriak, hurbileko baso eta landetan atsedean lekuak, Urbia, San Adrian, Aratz eta beste mendi ezagunetara ibilaldiak, estilo askotariko jai alaiak, ondo zaindutako ibiltoki eta kaleak herrian baita dudarik gabeko balio artistiko eta kulturaz betetako lekuak batez ere Lazarragatarren Jauregia, San Saturnino Parrokia eta Aistrako San Julian Baseliza, kirol-instalazioak eta, guztion gaineratik abegi ona, humore ona eta bertako biztanleen harrera haundiaren espiritua.

## **LAZARRAGA-AMEZAGATARREN JAUREGIA**

XVI. mendeko eraikin oso ederra, dudarik gabeko arkitekturazko balioduna, parroki elizatik hurbil herriaren erdian kokatzen da.

Bertan, barneko patio urria harrizko lau koloma eder jonikoez eta baranda artistikodun eskailera bikain batez gainera bere bi fatxada nabarmentzen dira: nagusiena, ekialdera, eta hegoaldekoa. Lehenengoan, sarrera-atea zabaltzen da plateresko, harrizko portada oso eder eta monumental batean enmarkatua. Koloma jonikoen bi bikote, oso ondo labratutako oinarri eta altu bakoitzaren gainean jasoak atearen alboan daude eta mazaz armatutako gizon bakoitza errepresentatzen dituen tamainu haundiko estatuei oinarritzat balio dute (Zaldondotarrek beti «Gizonak» deitu diete) armari haundiskia enmarkatzen dutena zein Lazarragatarren armekin (arrano baten gainean basauntz gizendua gari-soro batean) eta Amezagatarrenarekin (zuhaitz bat bere enborrean bi otso igarotzen) zizelatu zen lanbrekin ederrez apaindutako kasko batekin tinbratua.





*San Julianen baseliza.*

Zalantzarik gabe hegoaldeko fatxada da jauregiko ederrena. Bertan erredolaz, lorez eta maskorrez landutako kapitel politudun bost koloma jonikoez eraturako lau arkudun galeria eder bat zabaltzen da.

Oraindik orain Arabako Foru Aldundiak Jauregia erosita bertako dagozkien zerbitzuek mainaz berritu dute eta ahalik eta gehien lehenengo egitura errespetatuz trebetasunez zertarako den betekizunerako egokitu da eta ez da besterik Zalduekoko Kultur Elkartearen egoitza eta Eskualdeko Museo ondo jantzitakoaren aterpe izatea baino.

Kultur Elkartearen egoitza denez Jauregian eta urtean zehar hainbat aktibitate izaten dira, hauen artean aipagarrienak Pintura eta Eskultura Saria dira, baita Tapizgintza eta Zeramika ikastaroak ere.

Museo denez inguruko historia eta kulturaren zenbait erakusketa ditu, hauen artean nahiz aldizkakoa izan baina oso interesgarri den garai eta estilo desberdinetako lapida eta hilarrien erakusketa da, Santiagoko erromesekin zerrikusia duten Mapa eta laminak, urteroko lehiaketetan saritutako tapiz, kuadro eta eskulturak, baita Etnologiaren (sukalde, logela, ogi-labea e.a. zenbait gauzekin hornitua) gela bereziak, Folklore (bereziki Hiribilduko Inauteriei eskainitakoa), Zeramika (goi mailako didaktika bidean eraturak, gauzak eskainiz, zeramikaren erabilera desberdineri buruzko standak, baita gelan garatzen diren ikastaro berezietan erabiltzen diren tornuak), lekuko Fauna zenbait ale diseatutakoekin eta lekuko Artesania non lekuko artesauek egindako eskulanak aurkezten diren zestugintza, loregintza, ehungintza, lapikoen saregintza eta batez ere Elkartearen Lehendakari izan zen Blas Arratibelen lan handia, beste gauza interesgarrien artean hiribildua osatzen duten egoitza guztien eta bakoitzarekin maketa handi bat.

Atalburu berezi bat merezi du Hiribilduko arte erlijiosoari eskainitako guneak ornamendu, eliz-tresnak, koru-liburuak e.a. ekin, eta, guztien gainetik horma-pinturen bilduma oso interesgarria, errestaurazio aurretik Jauregian zirenak eta Arabako Foru Aldundiaren Errestauraketa Zerbitzuak bikain tratatuak, jauregiko hormetan berriz zintzilzkatuz. Jauregiko eskailera eta galeria apintzen zituen XVI. mendeko hormirudien bilduma bat da, tamainu handiko kolorebakarreko irudiak delineatuak eta itzalezatuak



*Eskualdeko Museoa, Jauregian.*

bakarrik testamentu zaharreko eszenak aurkeztuz, batez ere Lehenengo gurasoei Paraisoan dagozkienak, baita beste zertzelada gorteko eta simbolikodunak, horretaz gainera bat Lazarraga Santa Cruz Amarriaz, zeinek Jauregiaren eraiketa eta pinturak egin ziren garaia ematen digun. Hauek berritze-lan oso aipagarria hartu dute poliuretanozko euskarri eta beirazko fibraren gainean.

## **SAN SATURNINO PARROKIA**

Neurri haundiko XVI. mendeko eliza bat da, nora garai berdineko eta aintxinean hamarrenei eskainitako eraikin batek ia estalitako portada batetik heltzen da, arkibolta leunezko bi arku bikaineko arkupe barroko baten gainean eraikia.

Elizan aipagarriena erretaula platereskoa gertatzen da, ia beste moderno batez estalia, XVI. mendean Lazarraga-Amezagatarrak, zeinen armarrria murruetan aurkitzen den, eraikitako kaperan, eta Erretaula nagusia errenazentista. Bankan eta hiru gorputzez osatutako obra bikain bat, San Saturnino Zaindariari eskainia, zeinen irudiak bere erdia lekutzen duen taila haundizki batean, Andra Mariren Gizakunde eta Ilerkunderari eta Obispoen bi tailei buruzko bi erliebeen artean enmarkatua.

## **SAN JULIAN BASELIZA**

Hiribilduaren iparraldean muino batean lekutua, bertara Zaldondo Araiakin elkartzen duen bidetik hasten den errepidez lasai-lasai heltzen da, menditik hurbil dauden paisaia ikusgarrien zehar.

Aistra basarteko parroki eliza izan zen eta lehen erromanikoko ale bitxi bat da prerromaniko bezala katalogatzea eragiten duen zertzelada ugariekin, batez ere absidedeko leihoari eta teilatuko egarbea eusten duten harburuei dagokienez.

Leioa perra-arkuzko irekidura oso istu bat da zirkulua ia erabat osatzen duena, leiho beraren egitura berdineko, nahiz eta askoz istuagoa izan, bi bao itxu alboan dituen artesisu batez mendeldua.





*Ihauteria. Markitosen epaiketa.*

Harburuek aurpegi latzeko giza irudi arkaikoen, begi haundiko eta izugarizko belarridun gizon buruen bilduma eder bat da, baita ia desargeturik aurkitzen den animalia baten burua ere.

Nahiz eta gaur egunean elizkizunik ez egin baselizan, noiztik behin haurrak bataiatzeko erabiltzen da (Julian izena jartzen zaie) eta sarritan beste hildako haur batzuen senideak dira.

Arabako Aldundiak berriztatu du eta bere kanpokoaldean indusketa arkeologiko bat egin da. Indusketa honen ondorioz, baselizaren murrueen ondoan kokatutako haurren zenbait hilobi haurkitu dira, oso antxinako hiletan zalantzarik gabeko orogarri.

## **ATSEDEN LEKU ETA IBIL-LEKUAK**

Zalduondok plaza eta parke oso politak ditu. Hauen artean aipagarriena «El Prado» delakoa, non Celedoni monumentua jasotzen den, harriz egindakoa, pertsonaia honen urteko jaiak ospatzen diren egunean, abuztuaren lauaurreko igandean, hain zuzen, ardoa ematen duen iturri baten gainean.

Atal honetan aipatzekoak dira pelota-lekua, bolo-jokua bertako berezitasunerako eta lautadako ohizkorako pistekin, baita Jolas-Elkartea eta eraikintza tipikozko eraikin bikain batean dagoen Taberna, harrizko kolomak eutsitako balkonada haundiz.

## **ZAINDARIAREN ETA HERRIKO JAIK**

Zalduondok bere zaindariaren jaiak ekainaren bigarren igandez ospatzen ditu jaialdi alai eta elizkizun jatorrekin. Hala ta guztiz, gai honetan hiribildua ezaguna eragiten duena bertako inauterien ospakizuna da, zalantzarik gabeko balore etnologikoz betetakoak, inauteriak errepresentatzen dituen panpa den eta Euskadiko ospatsuenetakoen artean jai hau kokatzen duen «Markitos» en ibilaldi, makila-sartze, epaiketa eta erretzearekin.

Zalduondo Hiribildua Arabaren Ipar-ekialdearen ertzean dago lekutua, berez Udala eratuz eta Asparrena Hermandadeko partaide delarik Salvatierra-Agurain Kuadrilan.

Vitoria-Gasteiztik 33 kilometrotara, bertara N-1 errepidez Venta del Patiora heltzen da nondik L-623 hasten da Araiarano edo berriz Asparrenako Ventorroan N-1 ri lotzen da. Baita C.V.-158tik Aguraindik ere hel daiteke, zein aipatutako hiribildutik irtenik San Miliango Udalburu Ordoñanatik igarotzen den.



Hitzak: JOAQUIN JIMENEZ

Argazkiak: JOSE L. BARROSO, JON LLANOS

Irarketa: H. FOURNIER, S.A. - Vitoria-Gasteiz - Legezko Ezarpena: VI. 276 - 1986

**DIPUTACION FORAL  
DE ALAVA**



**ARABAKO FORU  
ALDUNDIA**

DEPARTAMENTO DE CULTURA - KULTURA SAILA  
SERVICIO DE TURISMO - TURISMO ZERBITZUA